

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Astelehen honetatik aurrera eska daitezke salmonidoen goiko eremuan amuarraina arrantzatzeko baimenak

Arrantzale bakoitzeko bost baimen emango dira gehienez ere.

Lunes, 14 de abril de 2014

Gaurtik, apirilak 14, hasita, salmonidoen goiko eremuan amuarraina arrantzatzeko baimenak eskatu ahal izango dira, [Internet](#) bidez edo 012 Infonavarra telefonora deituta (Nafarroatik kanpo egonez gero, 948 217 012 telefono-zenbakira), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 19:00etara .

Arrantzale bakoitzak bost baimen eskatu ahal izango ditu gehienez denboraldi osorako, arrantza mota edozein dela ere, hil gabeko arrantza deritzona barne. Ingurumen Departamentuak denboraldi honetarako arrantzarako 17.519 baimen emango ditu.

Denboraldi honetan ezin izango da amuarraina arrantzatu Ega eta Urederra ibaietan (ezta azken ibai horretako amuarrainaren barrutian ere), arro horietan hautemandako dentsitate bazuarengatik. Amaitzeko, arrantzale bakoitzeko hiru amuarrainen kupoa ezarri da, eta 35 zentimetro baino gutxiago eta 20 (bigarren mailako ibilguetan) eta 23 zentimetro (ibilgu nagusietan) baino gehiago izan beharko dituzte.

2014an bete beharreko araudia, datei, eremuei, moduei, ale kopuruari eta tamainari dagokienez, anda Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren [19/2014 Foru Aginduan](#) agertzen da. Bertako edukia [arrantzatzeko arauetako buruzko liburuxka](#) batean ere jaso da.

Eskaeren sistema

Salmonidoen goiko eremuan arrantzarako baimena izapidetzeko behar-beharrezkoa izango da arrantzaleak arrantzarako lizentzia izatea eta Nafarroako Gobernuak lizentzien datu-basean arrantzalearen datu zuzenak jasota egotea. [Zerbitzuen katalogoan](#) eskura daiteke arrantzarako lizentzia, eta bertan egiazta daitezke datuak ere.

Arrantzale bakoitzak izan ahalko dituen bost baimenetatik bat laneko egun baterako izan beharko da (larunbatak, igandeak eta Nafarroako jaiegun ofizialak dira jaiegunak). Baimenak tarteka emango dira. Zehazki, gaurtik, apirilak 14, maiatzaren 2ra, gehienez bi baimen erabili ahal izango dira. Maiatzaren 2tik ekainaren 2ra beste bi baimen eskatu ahal izango dira gehienez, eta, ekainaren 2tik 30era, beste baimen bat. Hala ere, ez da beharrezkoa izango tarte bakoitzean gehienezko baimen kopurua eskatzea. Horietako batzuk edo denak erreserbatu ahal izango dira gaurtik hasita denboraldia amaitzen den arte. Edonola ere, baimenak erabilgarritasunaren arabera emango dira.

Baimena eskatzean, arrantzaleek egingo duten arrantza mota

adierazi beharko dute, hau da, harrapatzekoa edo harrapatze eta askatzekoa.

Baimenen banaketa arro bakoitzeko

Guztira, Ingurumen Departamentuak amuarraina arrantatzeko 17.519 baimen emango ditu denboraldi honetan, aurreko denboraldian baino % 35 gutxiago. Orduan 27.197 baimen eman ziren. Murrizketak Nafarroako ibaietako aleen dentsitate baxuagatik egin dira. Horregatik, Nafarroako Gobernuak espezieen bideragarritasuna eta arrantzaleen jarduera bateragarriak izatea lortu behar du.

Salmonidoen goiko eremua zazpi arrotan banatu da. Arro bakoitzean, arrantzatu daitezkeen espezieen kopuruaren arabera baimen kopurua egongo da eskuragarri:

- Arga-Ultzama: 553 baimen, Eugiko barrutia: 216 baimen
- Arakil-Larraun: 303 baimena
- Baztan-Bidasoa: 8.428 baimen
- Ega-Urederra: 0 baimen, Zudairiko barrutia: 0 baimen (debekatutako arroa)
- Irati-Erro: 3.269 baimen
- Oria-Urumea: 4.750 baimen
- Ezka-Zaraitzu: 0 baimen (debekatutako arroa)

Zabalik dagoen arro bakoitzaren barruan, arrantzaleak eremuan erabilgarri dagoen edozein ibaitara joan ahal izango dira.

Salmonidoen goiko eremuko ibaien ertzetan bizi diren arrantzaleek ere arrantzan egiteko baimena eskatu beharko dute, baina euren eremuko baimenen % 20 gordeta izango dute aldi baterako. Erabili ezean, maiatzaren 1etik aurrera gainerako arrantzaleek eskuratu ahal izango dituzte.

Ez da beharrezkoa barruti intentsiboetan arrantza egiteko baimenik eskatzea, halako barrutietan baimenak euren kabuz arautzen dituztelako.

Samonidoen eremu mistoa

Bestalde, **salmonidoen eremu mistoan**, amuarraina apirilaren 1etik uztailaren 31ra arrantzatu ahal izango da, asteko egun guztietan, astearteetan izan ezik, eta 20 zentimetro baino gehiagoko hiru amuarrainen kupoa egongo da. Hala ere, debekatuta dago apirilean belauna baino beheagoko sakonerako eremuetan ibilguaren barrutik arrantza egitea, arrabalekuak eta amuarrainkumeak sortzeko eremuak babesteko.

Izokin arrunta eta itsas amuarraina maiatzaren 1etik 66. izokina harrapatzen den egunera arte eta, itsas amuarrainaren kasuan, 17.a harrapatzen den arte arrantzatu ahal izango dira Bidasoa ibaian horretarako gaitutako tartean. Egun horietara iristean horrebeste ale harrapatu ez badira, bi espezieak arrantatzeko azken eguna uztailaren 15a izango da. Arrantzake bakoitzak espezie bakoitzeko ale bakarra arrantzatu ahal izango du eguneko; izokinak 40 zentimetro baino gehiagokoak izan beharko dira eta itsas amuarrainak 35 eta 50 cm artekoak. Izokinaren arrantzako berritasunetako batzuk dira basozainek eskumena izango dutela arrantza debekatzeko ibaietako baldintza txarren ondorioz izokinek edo beste espezie batzuek kalteak jasan ditzaketenean, eta arrantzarako ordutegia areago mugatzea, hau da, 7:00etatik 21:30era izango da (lehen 6:30etik 22:30era zen).

Ziprinidoen eremua eta espezie inbaditzaileak

Urte osoan zehar arrantza daitezkeen **ziprinidoen eremuari** dagokionez, bi debeku ezarri dira: eremu horretan bakarrik erabili ahal izango dira amu anizkun bat baino gehiagoko arrain artifizialak, baina debekatuta dago sareekin arrantza egitea, aurreko denboraldietan baimendu zen bezala.

Espezie exotiko inbaditzaileen arrantzari dagokionez, alburnoak, siluruak eta gasto arrainak arrantza daitezke, lehenagotik baimenduta daudenez gain. Espezie exotiko inbaditzaile guztietan nahitaez hiltzeko beharra mantentzen da, baita norberaren kontsumorako eramateko edo arrantzatzea baimenduta

daqoen espezieak kentzeko aukera ere.